

2019



ARKEOLOGIA

Aranzadiren udako indusketak



Ikerketa arkeologikoak Aranzadi Zientzia Elkarteak udan garatzen duen jarduera nagusietako bat dira. Koba, dolmen, herrixka, galtzada, gaztelu, ermita eta abarretan erregistratzen den informazioa ezinbestekoa da gure iragana ezagutzeko eta gure ondarea kontserbatzeko.

Aranzadiren ikerketa arkeologiko horiek bertako zuzendarien, ikasleen eta bertan inplikaturako pertsona guztien boluntariotza-lanari esker egiten dira. Era berean, udalekin eta aztarnategiak dituzten udalerrietako herritarrekin lankidetzan garatzen dira. Hori guztia dela eta, eskerrak eman nahi ditugu boluntariotza arkeologiko horrengatik; izan ere, horrela izan ezean, proiektuak ezingo lirateke burutu.

Parte hartzeko, laguntzeko eta ikasteko interesa duten pertsonen eskariari erantzuteko, informazio-liburuxka hau egin da; bertan, Aranzadik 2018an jendearentzat zabalik dituen indusketen oinarrizko informazioa aurkituko duzu.

Interesa baduzu, izena eman dezakezu ondorengo formularioan 2019ko ekainaren 10era arte.

FORMULARIORA SARTU

SAN ADRIAN - LIZARRATE

(ZEGAMA-SEGURA-IDIAZABAL, GIPUZKOA)



Mota: Indusketa arkeologikoa koban

Kronologia: Goi-paleolitoa, Erromanizazioa, Brontze Aroa, Erdi Aroa, Aro Modernoa.

Indusketa-datak: uztailaren 15-27

Zuzendaritza: Alfredo Moraza, Manu Ceberio, Jesus Tapia

Hizkuntza: elebiduna (gaztelania eta euskara)

Prezioa: doakoa (ostatua eta mantenua barne).

Leku-kopurua: 10

Laguntzaileak: Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Nagusia, Zegamako, Segurako, Idiazabalgo, Asparrenako, Donemiliagako eta Zeraingo udalak, Gipuzkoako Foru Aldundia, Aizkorri Parkea.

San Adrian-Lizarrate kobako aztarnategia da; bertan, goi-paleolitotik hasita XX. mende arteko material arkeologikoak jasotzen dira. Suharrizko tresnak, hezur- eta fauna-hondakinak, txanponak eta arma-zatiak eta antzinako eraikinak daude Gipuzkoa sakonean, 1000 metrotik gora dagoen koba honetan.



Brontze aroko zeramika, San Adrian.



TXORITOKIETA

(ERRENTERIA, GIPUZKOA)



Mota: Muiltzo megalitikoko ikerketa arkeologikoa.

Kronologia: Neolitoa - Brontze Aroa

Indusketa-datak: irailak 3-15

Zuzendaritza: Jesús Tapia, Manu Ceberio

Hizkuntza: elebiduna (gaztelania eta euskara)

Izena emateko prezioa: doakoa (mantenua barne)

Leku-kopurua: 10



Aitzetako Txabala, Txoritokieta

Laguntzaileak: Erreneriako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia

Berrozpinen eremuan, Txoritokietako estazio megalitikoaren barruan, monumentu megalitiko ugari aurkitu dira, eta suharrizko hainbat tresna berreskuratu dira. Ikerketak megalitotegiaren antolaketa aztertzea du xede; orain arte ezagutzen diren megalitoez gain, monumentu berrien eta inguruko bizilekuen aztarnak aurkitzen ari gara.



KARAKATE-IRUKURUTZETA

(SORALUZE - ELGOIBAR - BERGARA, GIPUZKOA)



Mota: tumuluko indusketa arkeologikoa

Kronologia: Neolitoa - Brontze Aroa

Indusketa-datak: ekaina

Zuzendaritza: Manu Ceberio

Hizkuntza: elebiduna (gaztelania eta euskara)

Izena emateko prezioa: doakoa (mantenua barne)

Leku-kopurua: 5

Laguntzaileak: Soraluzeko Udala, Debegesa, Gipuzkoako Foru Aldundia

Ikerketaren helburu nagusia “Dolmenen ibilbidea” osatzen duten megalitoak aztertzea da. Deba eta Urola haranen arteko 20 km-ko igarobide honek Elosua-Plazentziako Megalitotegia osatzen du, Karakate, Irukurutzeta eta Agirreburu gailurren artean. Proiektuaren bigarren helburua, trikuharri eta tumuluak industeez gain, historiaurreko bizilekuak ere aurkitzea da.



ERROIZPE - ULI KORDALA

(LEABURU - BERASTEGI - GAZTELU - LIZARTZA - OREXA, GIPUZKOA)



Mota: Prospekzio arkeologikoa kata eta zundaketekin

Kronologia: Burdina Aroa - Erdi Aroa

Indusketa-datak: uda-udazkena*

Zuzendaritza: Manu Ceberio, Izaro Quevedo

Hizkuntza: elebiduna (gaztelania eta euskara)

Izena emateko prezioa: doakoa (mantenua barne)

Leku-kopurua: 5

Laguntzaileak: Leaburuko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia

Ikerteten helburua da gailur-lerro menditsu honetako populaketaren bilakaera berreraikitzea, historiaurretik Erdi Aroa. Egiten ari diren lanei esker, hainbat aztarna arkeologiko aurkitu dira: monumentu megalitikoak, antzinako etxolak eta abar.

* lanak egun solteetan burutuko dira, uztaila-urria bitartean. Indusketa honetan eskualdeko pertsonak izango dute lehentasuna, zundaketak eremutik gertuago baitaude.



JAIZKIBEL V

(HONDARRIBIA, GIPUZKOA)



Mota: indusketa arkeologikoa hileta-monumentuan

Kronologia: Neolitoa - Brontze Aroa

Indusketa-datak: Lehen fasea: Maiatza-Ekaina // Bigarren fasea: definitu gabe.

Zuzendaritza: Manu Ceberio

Hizkuntza: elebiduna (gaztelania eta euskara)

Izena emateko prezioa: doakoa (ostatua bane)

Leku-kopurua: 7

Laguntzaileak: Hondarribiako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia

Jaizkibel II eta V mahirubaratz edo hileta-multzo bat da, harri-zirkuluez eraikia. Joan den urtera arte ez zen ezagutzen zenbat egituraz ostuta dagoen multzoa, ez eta zein diren bere ezaugarri nagusiak. Abian dagoen ikerketari esker egitura gehiago antzeman dira multzoan, uste baino handiagoak, eta multzoa lurraldeko esanguratsuenetako bat bilakatzen ari da.



ANDATZA

(USURBIL - DONOSTIA, GIPUZKOA)



Mota: Prospekzio arkeologikoa kata eta zundaketekin

Kronologia: Neolitoa - Erromatar garaia

Indusketa-datak: Ekainak 17-28

Zuzendaritza: Manu Ceberio, Izaro Quevedo

Hizkuntza: elebiduna (gaztelania eta euskara)

Izena emateko prezioa: doakoa (mantenua barne)

Leku-kopurua: 5

Laguntzaileak: Usurbilgo Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia.

Ikerketa honen helburua gure lurraldeko Kalkolito eta Brontze Aroa hobeto ezagutzea da, Andatza, Belkoain, Garate eta Zarate mendietan kata eta zundaketen bitartez, guztiak Oria ibaiaren inguruan kokatzen direnak. Orain arte monumentu megalitiko batzuk aurkitu izan dira bertan eta ikerketa honi esker garai eta kronologia desberdinetako zantzu interesgarriak agertzen ari dira, horietako asko historikoak.

* Ianak egun solteetan burutuko dira, uztaila-urria bitartean. Indusketa honetan eskualdeko pertsonek izango dute lehentasuna, zundaketak eremutik gertuago baitaude.



MUNOAUNDI

(AZKOITIA-AZPEITIA, GIPUZKOA)



Mota: Indusketa arkeologikoa herrixka gotortuan

Kronologia: Burdina Aroa

Indusketa-datak: uztailak 8-27

Zuzendaritza: Antxoka Martínez

lHizkuntza: elebiduna (gaztelania eta euskara)

Izena emateko prezioa: doakoa (ostatua eta mantenua barne)

Leku-kopurua: 20

Laguntzaileak: Azpeitiko eta Azkoitiko udalak, Gipuzkoako Foru Aldundia.

Munoaundi herrixkako indusketetan batik bat bertako biztanleek Burdina Aroan izandako bizimodua eta defentsa-sistema (harresia eta barrutira sartzeko sistema) aztertzen da. Gaur egun, ikerketa bi arlotan zentratzen da, eta, horietan, barrutiaren sarbidea eta harresiaren ondoko biztante-eremua aztertzen dira.



Brontzezko pisua, Munoaundi



BASAGAIN

(ANOETA, GIPUZKOA)



Mota: Indusketa arkeologikoa herrixka gotortuan

Kronologia: Burdina Aroa

Indusketa-datak: iraila

Zuzendaritza: Xabier Peñalver, Eloisa Uribari

Hizkuntza: elebiduna (gaztelania eta euskara)

Izena emateko prezioa: doakoa (ostatua eta mantenua bame)

Leku-kopurua: 15



Fskuko baten zatia, Basagain

Laguntzaileak: Anoetako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia

Burdina Aroko herrixka Anoetako (Gipuzkoa) Basagain mendian dago, eta duela 20 urte baino gehiagotik hona egiaztatu da bertan zegoen merkataritza-jarduera, burdinazko, zeramikazko tresnak eta beira-aleak agertu zirelako zenbait puntutan. Euskal Herrian arkeologikoki gotortutako herrixka aktiboenetako bat da.



IRULEGI

(ARANGUREN, NAFARROA)



Mota: Indusketa arkeologikoa

Kronologia: Burdina Aroa

Indusketa-datak: uztailak 1-14

Zuzendaritza: Mattin Aiestaran

lHizkuntza: elebiduna (gaztelania eta euskara)

Izena emateko prezioa: doakoa (ostatua eta mantenua barne)

Leku-kopurua: 18

Laguntzaileak: Aranguren Ibarreko Udala, Nafarroako Gobernua.

Iruñerriako Burdin Aroko herrixka gotortu baten ikerketa da, zeinaren gainean gaur egun induskatuta eta musealizatuta dagoen Behe Erdi Aroko gaztelu bat eraikia izan baitzen. Bertako jendearen eguneroko bizimodua aztertzea dugu xede, hirigintza eta defentsa-sistemeekin batera.



zeramika zatia, Irulegi



PIRINIOETAKO ERROMATAR

GALTZADA: ZALDUA

(AURITZ, AURIZBERRI, NAFARROA)



Mota: Indusketa arkeologikoa

Kronologia: Erromatar garaia

Indusketa-datak: uztailak 8-28

Zuzendaritza: Julian Hill, Juantxo Agirre-Mauleon, Oihane Mendizabal, Ekhiñe García

Hizkuntza: Ingelesa, euskara eta gaztelania

Izena emateko prezioa: doakoa (ostatua eta mantenua barne)

Leku-kopurua: 5

Laguntzaileak: Nafarroako Gobernua, Euskokultur Fundazioa, Luzaideko, Orreagako, Auritzeko, Erroibarko, Artzibarko, Agoizko, Longidako udalak, Aurizberriko kontzejua.

Pirinioak zeharkatzen dituen ITER XXXIV galtzadan kokatutako hiri-finkapen erromatarra da Zaldua. Bertako indusketa kanpainaren helburuak hauek dira: kokaleku hori buruz informazioa jasotzea, aztarnategia ezagutaraztea eta erregistro arkeologikoan trebakuntza eskaintzea (arloearekin zerikusia duten ikasketetan ari diren eta interesa duten gazteei zuzendua). Indusketa Museum of London Archaeologyko (MOLA) eta Aranzadiko adituek elkarlanean zuzentzen dute.



Luzernak, Zaldua



PIRINIOETAKO ERROMATAR

GALTZADA: ARTZIBAR

(ARTZI, NAFARROA)



Mota: Indusketa arkeologikoa

Kronologia: Erromatar garaia

Indusketa-datak: abuztuak 19 - irailak 1

Zuzendaritza: Ekhine García, Oihane Mendizabal,

Juantxo Agirre-Mauleon

Hizkuntza: elebiduna (gaztelania eta euskara)

Izena emateko prezioa: doakoa (ostatua eta mantenua bane)

Leku-kopurua: 15

Laguntzaileak: Nafarroako Gobernua, Euskokultur Fundazioa, Luzaideko, Orreagako, Auritzeko, Erroibarko, Artzibarko, Agoizko, Longidako udalak, Aurizberriko kontzejua.

Artziko parajea (Artzibar udalerrian), erromatar galtzadaren ertzeko aztarnategi arkeologikoa identifikatu zen 2012. urtean. Mendiko portu eta lautaden arteko trantsizio inguruan kokatuta dago, aurre Pirinioan, hain zuzen ere. Lurpean dauden eraikin multzo batez osatutako asentamendu erromatarra da eta azken kanpainetan berogailu sistemaz hornitutako eraikin baten indusketa burutzen ari da.



Pitxerra, Artzibar



AMAIUR

(BAZTAN, NAFARROA)



Mota: Indusketa arkeologikoa gazteluan

Kronologia: Aro Modernoa (1512-1522)

Indusketa-datak: abuztuaren 1-15

Zuzendaritza: Juantxo Agirre-Mauleon

Hizkuntza: Euskara

Izena emateko prezioa: 100 EUR (ostatua eta mantenua barne)

Leku-kopurua: 50



Amaiurko espata

Laguntzaileak: Amaiurko Herrie, Baztango Udala

Amaiurreko gaztelua Nafarroaren konkistari gogor egin zioten azken gotorlekuetako bat izan zen. Kanpaina honetan, kubo handia mugatu eta dokumentatuko da, 1513ko eraikuntza bat, kanoi-zulo plataforma handi bat hartzeko diseinatu zena.



SASETA DEFENTSA SISTEMA

(ADUNA - ASTEASU - ZIZURKIL - LARRAUL, GIPUZKOA)



Mota: Indusketa arkeologikoa lubakietan

Kronologia: 1936

Indusketa-datak: uztailak 1-14

Zuzendaritza: Javi Bucés, Alba Peña, Julien Blanco, Manex Arrastoa, Iñaki Alzuguren

Hizkuntza: elebiduna (gaztelania eta euskara)

Izena emateko prezioa: doakoa (ostatua eta mantenua barne)

Leku-kopurua: 18

Laguntzaileak: Adunako, Asteasuko, Zizurkilgo eta Larraulgo udalak, Gipuzkoako Foru Aldundia.

1936ko Frankoren altxamendutik, Oria haraneko eremu honetako mendietan, antolatutako lehenengo erresistentzia gauzatu zen, Azpeitiko komandantziatik bultzatutako lubaki eta defentsa-elementuen bidez. Leku horietan, lehenengo liskar belikoak izan ziren, eta lehenengoz matxinatuak eten zituzten Euskal Herrian. Memoria historikoa berreskuratzeko lanen barruan, ahaztutako ondare hori dokumentatzen ari da.



bala zorroak, Saseta defentsa sistema



LEMOATX

(LEMOA, BIZKAIA)



Mota: Indusketa arkeologikoa lubakietan

Kronologia: 1937

Indusketa-datak: uztailak 15-28

Zuzendaritza: Alba Peña, Julien Blanco

Hizkuntza: Elebitan (euskara eta gaztelania)

Izena emateko prezioa: doakoa (ostatua eta mantenua barne)

Leku-kopurua: 15

Laguntzaileak: Lemoako Udala

Gerra Zibilean Lemoatxeko gunean guda bortitza gertatu zen, Lemoa frankisten eskuetan erori zen honen ondorioz eta ehundaka soldadu erail zituzten bertan. Tokiko memoria historikoa berreskuratzeko helburuarekin, Lemoako Udalak eta Aranzadiak 6 urte daramatzate Lemoatxeko lubakiak industen. Aurten lubaki berrien ikerketa gauzatuko da.



granada zatia, Lemoatx



BABIO

(IZORIA, ARABA)



Mota: Indusketa arkeologikoa herri harresituan.

Kronologia: Brontze Aroa- Burdin Aroa

Indusketa-datak: uztailak 29 - abuztuak 10

Zuzendaritza: Jon Obaldia Undurraga

Hizkuntza: Elebiduna (Gaztelera eta euskara)

Izen-emateko prezioa: Doakoa (Ostatua eta mantenua barne)

Leku kopurua: 6

Laguntzaileak: Izoriako Kontzejua, Aialako Udala , Arabako Foru Aldundia

Babioko herrixka gotortua Aiaraldeko lurretan kokatzen da (Izoria- Araba). Indusketen xedea, bertan Brontze Finalean eta Burdin Aroan bizi izandako jendeen bizimodua eta defentsa-sistema aztertzea da.



Zeramika dekoratua

FIRST SAGA TRAINING SCHOOL: INTRODUCTION TO THE USE OF GEOPHYSICAL AND SOIL SCIENCE METHODS IN ARCHAEOLOGY

The archaeological site of Zaldúa has been chosen to host the First SAGA Training School. The 'Soil science & Archaeo-Geophysics Alliance' (SAGA) is a new interdisciplinary network of scientists. SAGA develops, promotes and facilitates research activities, bringing together archaeo-geophysics and soil science, with the overall goal of maximising interpretation of proxy data for archaeological purposes. The network and related activities are funded by the European Cooperation in Science and Technology. More detailed information about COST Action SAGA can be found here (<https://www.saga-cost.eu>).


This first training school will address the basis of the most-used geophysical and soil science methods used in archaeological prospection and characterisation, together with the interactions between them. Theoretical sessions will be complemented with hands-on sessions at the roman site of Zaldúa (Navarre). After its discovery in 2012, geophysical methods have been extensively used to delimit and characterise this roman city.

The training school will be held in Auritz (Navarre) between 2019/07/29 and 2019/08/02. The training school is free and travel and accommodation expenses of participants will be supported by SAGA funding.

Master students, PhD candidates, postdoctoral researchers, field archaeologists, curators and other professionals working in cultural heritage management can apply to attend the training school.

Applicants can apply for a SAGA Trainee Grant, which is a contribution to the overall travel, accommodation and meal expenses of the Grantee. Conditions can be seen in the section 6 of the [Vademecum](https://www.cost.eu/wp-content/uploads/2019/05/Vademecum-May-2019.pdf) (<https://www.cost.eu/wp-content/uploads/2019/05/Vademecum-May-2019.pdf>).

Submit your application using the form (http://cort.as/-Hd_x) before the 15th of June. More information: sagacost.ts@gmail.com / ekhinegarcia@yahoo.com





ARKEOLOGIA LABORATEGIA

(DONOSTIA, GIPUZKOA)



Kronologia: erromatar garaia

Data: iraila-urria

Zuzendaritza: Suberri Matelo, Oihane Mendizabal

Hizkuntza: elebiduna (euskara eta gaztelania)

Prezioa: doakoa

Leku-kopurua: 16

Ikerketa arkeologikoan landa lanaz gain laborategiko lana ere egin behar izaten da. Hori dela eta, material arkeologikoaren tratamendu, kudeaketa eta espezializazioan sakondu nahi duten pertsonei bideratutako jarduera da hau.

Bertan, aztarnategietatik iristen den materiala prozesatuko da: garbiketa, katalogatze (argazkiak atera, datu baseak osatu, etab.) eta sailkatze lanak egingo dira. Horretaz gain, material arkeologikoaren tratamendu eta ikerketari buruzko prestakuntza osagarria ere eskainiko da: hitzaldiak, marrazketa arkeologikoko praktikak eta materialen gordailura bisitak eskainiko dira. Laborategi lanetan parte hartzeko ez da gariari buruzko aurretiazko jakintza teknikorik izan behar, ikasi eta lan egiteko gogoia soilik. Irailetik urrira antolatuko da jarduera Aranzadi Zientzia Elkarteak Donostian duen egoitzan (ordutegi eta egutegi zehatzak hilabetekako txandetan antolatuko dira izena ematen dutenen eta arduradunen artean adostuta).

LAGUNTZAILEAK

INSTITUCIONES Y EMPRESAS



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Kultura, Gazteria eta Kirol
Departamentua
Departamento de Cultura,
Juventud y Deporte



**Nafarroako
Gobernua**

Debegesa



Aranguren Telebista
Aranguren Teletxiketa



Gaztelu Elkarte

AYUNTAMIENTOS



Aduna



Agoiz



Anoeta



Aranguren



Artizar



asteasuko udala



Auritz



Udaia



azpeitia



Baztan



Errenteria



Erroibar



Hondarribia



Iza



Idiazabal



Larraul



Leaburu



Lemoa



Longida



Luzaide



Segura



Soraluze



Usurbil



Zegama



Zerain



Zizurkil


ZERBITZU

ARKEOLOGIKOAK

- Indusketak, zundaketak eta prospekzio arkeologikoak
- Obren kontrol arkeologikoa (lur mugimenduak, sastrakak kentzea...)
- Azterlan historiko-arkeologikoak eta dokumentalak
- Ondasun higiezinak eta higigarrien azterlana eta balorazioa
- Prospekzio geofisikoak
- Laser bidezko eskaneatzea eta aztarnategien topografiatzea
- Aztarnategien aireko argazkia
- Material arkeologikoen azterlan espezializatua (zeramika, fauna, litikoa)
- Azterketa antropologikoak
- Aztarnategien eta material arkeologikoen inbentarioa eta katalogazioa
- Legezko aholkularitza - hirigintza-plangintzako arauak
- Aholkularitza historikoa
- Itzulpen espezializatuak
- Argitalpenak
- Ondare-elementuen musealizazioa eta seinalizazioa
- Aztarnategi arkeologikoak finkatzea eta lehengoratzeta
- Publikoari oro har eta eskolatuak zuzendutako tailer didaktikoak
- Erakusketen antolamendua
- Ondareari buruzko unitate didaktikoak eta e-learning ikastaroak
- Auzolandegiak eta boluntariotza-lanak antolatzea

Informazio gehiago: www.aranzadi.eus

Harremanetarako: zuzendaritza@aranzadi.eus



aranzadi
zientzia elkarte

Zorroagagaina 11
20014 Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)
Tel.: 943 466 142
www.aranzadi.eus